

## **Irizar taldeak ofizialki inauguratuko ditu bere Ormaiztegiko instalazio berriak 125. urteurrena ospatzearekin batera**

*Ormaiztegin, 2014ko uztailaren 18an*

**Sendotasun eta hazkunde handiko une batean, Irizarrek bere lehen 125. urteurrena ospatu du gaur.**

**Ekitaldian, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu jauna eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Martin Garitano jauna izan dira, beste agintari batzuekin batera, eta baita Irizar familiako ordezkariak, hornitzaileak, inguruko kolaboratzaileak eta Irizarako pertsonak ere. Ormaiztegin izan da ekitaldia.**

Parte hartu dute Kooperatibako lehendakari Gorka Herranzek eta Irizar Taldeko zuzendari nagusi Jose Manuel Orcasitasek, eta 125 urte hauen atzera begirakoa egin dute; ondoren, Martin Garitano eta Iñigo Urkullu jaunek hitz egin dute.

Hitzaldiak amaitu eta gero, ekitaldi hunkigarria egin da, sinbolismo historikoz betea, zeinean Irizarrek denbora horretan zehar fabrikatutako hamar autokarrek desfilatu duten, Nerea Erauskin sopranoaren ahots zoragarriaz lagunduta.

Irizar 1889an sortu zen eta sortzailea, Jose Antonio Irizar ekintzaile gipuzkoarra, izan zen gurdientzako burdineria fabrikatzen bidaiarien garraioaren arlora pasatzea erabaki zuena. XIX. mende bukaeran familiako enpresak bere kutsu perfektionista erantsi eta zalgurdi eta diligentzia dotoreak mimoz sortzeari ekin zion, ia hiru hamarkadatan garatu zuten jarduera.

1927an trakzio mekanikodun lehen Irizar autokarra egin zutenek inoiz ez zuten pentsatuko euren enpresa txikia munduan erreferente bihurtuko zenik errepideko bidaiarien garraiorako autokarren fabrikazioan. Ezaugarritzat zuten eta hurrengo belaunaldiei transmititu zieten jarrera berritzailearekin aurre egin zioten erronkari, Irizar markaren nortasun ezaugarri bihurtu arte.

1948an metala gehitu zitzaion autokarrei eta artisau eran fabrikatutako lehen ibilgailu erdimetalikoa merkaturatu zen. Autokar erabat metalikoak ez ziren iritsi beste bost urte pasatu arte.

1963an Irizar Sozietate Kooperatibo bihurtu zen.



1995ean nazioartekotze prozesua hasi zen karrozerien teknologia transferitzeko estrategiaren ondorioz. Produkzio lantegiak ezarri ziren Txinan, Marokon, Brasilen, Mexikon, Indian eta Hegoafrikan. Gainera, Hispacold eta Masats gehitu ziren taldera. Hazkunde ekonomiko handiko 14 urte izan dira, eta Irizarrek hazkunde handia izan du Ormaiztegin ere, urtean 1.500 karrozeria fabrikatzera iritsi arte.

2009an, krisi garai bete-betean, iraultza estrategikoa burutu zen eta horrek Irizar indartzea eta haztea ekarri du, marka historikoak lortu arte.

Markaren aldeko apustua egin zen, autokar fabrikatzaile bihurtzea erabaki zen eta apustu oso indartsua egin zen dibertsifikazioaren eta teknologiaren alde.

Era berean, bultzada eta jauzi handia eman zen produktuen kalitatean eta fidagarritasunean.

Mundu guztiko bezeroengana gerturatzeko ahalegina ere egin da, produktu eta zerbitzu guztiak haien beharretara egokituz, eta horrek hazkunde handia ekarri du, batez ere Mexiko eta Brasilen.

Dibertsifikazio industrialaren estrategia giltzarritzat jo da taldearen sendotasunerako, eta ondorioz, 2009 eta 2013 artean taldera gehitu dira Jema Energy, Datik eta Alconza, potentzia-elektronikaren arloan, garraioaren kudeaketarako ITS irtenbideen arloan eta makinaria elektriko birakarien arloan ari direnak, hurrenez hurren.

2011n Irizar markako autokar integrala merkaturatu zen, eta karrozari izatetik autokar fabrikatzaile izatera pasatu zen.

2011n hirietarako mugikortasun iraunkorrerako proiektua ere hasi zen % 100 elektrikoa eta zero isurpen autobus baten garapenarekin.

2012an Creatio sortu zen, Irizarko ikerketa eta Garapen Zentroa. Ikerketa aplikatuko aukerak indartu eta Irizar Taldea teknologikoki garatzeko sortu zen, bai osorik Irizarko produktu direnetan bai karrozerien osagai nagusietan. Horrekin batera Trainee Program bat jarri zen martxan, kualifikazio handiko pertsonak gurean lanean hasteko eta beharren arabera zentro honetan integratzeko.

2014an Donostian erabat taldearen teknologiarekin garatutako Irizar Taldearen lehen autobus elektrikoa aurkeztu da, Irizar i2e.

Inoiz baino indartsu eta gazteago, Irizar talde sendoa da gaur egun, geografikoki eta industrialki dibertsifikatua eta etengabe hazten ari dena. Markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren aldeko apustu argia egiten duen taldea eta bere produktuen alde ari dena bai autokarretan, bai autobus elektrikoetan, bai presente dagoen gainerako sektoreetako produktuetan ere.



Munduan zehar banatuta sei autokar lantegi dituen taldea, baina, gainera, beste bost konpainia ere badituena dibertsifikazio industrialaren ondorioz, eta baita epe luzeko ikuspegiarekin lan egiten duen zentro teknologiko bat ere ikerketa aplikatua eta bere produktu eta sistemen garapenean.

### **Instalazio berrien inaugurazioa**

Irizarren 125. urteurrenaren ospakizuna marko ezin hobea izango da bereziki bezeroarentzat sortu diren instalazio berri eta modernoak inauguratzeko.

1.200 m<sup>2</sup>-ko bigarren solairu bat eraiki da, eta barnean du autokarrak definitzeko eta bezeroen harrera eta bizipenerako espazio moderno eta berritzailea; Creatio I+G+B zentroa ere han dago eta baita gune korporatibo handi bat ere.

Showroomean tapizeria eta estalki aukera guztiak daude bertsio fisikoan nahiz birtualean, bezero bakoitzak bere autokarra modu eksklusibo eta pertsonalizatua diseinatu ahal dezan.

Eraikin eta harrera leku berriak bisitaria hartu eta Irizarren mundura eraman nahi dute, marka sendoa eta etengabe hazten ari dena, eta etorkizunak eta teknologiak garrantzi berezia dutena.

Gainera, autokarrak bezeroei entregatzeko eraikin moderno bat eraiki da, urteurren honen aitzakian museo historiko bihurtu dena behin-behinean, Irizarko autokar enblematikoenak jasoko dituen egurrezko lehen autokarretik hasita.

Horrez guztiaz gain eskultura lan bati estalkia kendu zaio gaur. Irizarrentzat bereziki diseinatutakoa da eta efemeride hau gogorarazteko pieza izango da.

Eskulturak forma sinpleak ditu baina hiru elementu kurbatuk mugimendu eta erritmo sententzia ematen diote. Mugimendu hori eskulturaren makurtze arinak indartzen du, noranzkoaren, ibilbidearen, aurrera begiratzearen eta etorkizunari begira dagoenaren sena gehitzen diona. Pieza garbia eta zehatza da sorreran, eta horrek modernitate eta teknologiaren ideiak nabarmentzen ditu. Horri guztiari markaren bereizgarri den atzerako ispiluari egiten dion erreferentzia leuna gehitu behar zaio; eta baita forma erdizirkular irmoa ere, errepideari erreferentzia kontzeptuala egiteaz gain erritmo limurtzailea eta pausatua eranstean dizkiona.

José Manuel Orcasitasen hitzetan, "gaur egungo Irizar taldea 125 urteko ibilbidearen emaitza da, sortzailearengandik hasita gauzak ondo egin dituzten pertsona askoren lanaren emaitza, haiek jarri baitzituzten gaur garenaren oinarriak. Haiek guztiak eta gaur egun Irizar osatzen dugunak gogoratu eta guztiei eskerrak emateko ordua da inplikazioagatik eta ekarpenagatik, eskerrik asko benetan".



Informazio gehiago nahi baduzu jarri harremanetan:

Irizar, S. Coop.

Ana Eceiza

Mail: [aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)

Tel.: + 34 667181833

[www.irizar.com](http://www.irizar.com)